



OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Arrunta

Eguna: 2025.03.28

Ordua: 16:30

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.
- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIAK:

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. Osoko bilkurako deialdiak elektronikoki jakinarazteko onespena.
3. ADAMO TELECOM IBERIA, S.A.U. Arantzako herri lurak okupatzeko espedienteari hasierako onespena.
4. Alkate Ebazpenak.
5. Eskaerak eta galderak.



1. AURREKO AKTAREN IRAKURKETA ETA, BIDEZKOA BALITZ, ONESPENA.

2025eko otsailaren 28ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

2. OSOKO BILKURAKO DEIALDIAK ELEKTRONIKOKI JAKINARAZTEKO ONESPENA

Idazkariak azaldu du Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 80.3. artikuluan xedaturikoari jarraiki, zinegotziei beraien bizilekuan jakinarazi beharko zaizkiela osoko bilkuretarako deialdia, gai ordena eta akten zirriborroak.

Zentzu horretan, gai ordenen aztertzearekin laguntzeko, zinegotziei espedienteetako dokumentu nagusiak helarazten zaizkie, babestuta dauden datuak dutenak salbu. Halaber, zenbait kasutan, babesturiko datuak ere egon daitezke.

Orain arte osoko bilkuretarako deialdiak posta elektronikoz helarazi izan zaizkie zinegotziei, horrela adierazi baitzuten kargu hartzea egiterakoan. Halaber, modu horretara, ez da ziurtatzen deialdiaren jakinarazpena jaso izan dutenik eta, gainera, datu babesturik balego, horien tratamendu okerra gertatu liteke.

Horregatik guztiagatik, idazkariak hemendik aitzin osoko bilkuretarako deialdiak egoitza elektronikoko jakinarazpen bidez helaraztea proposatu du. Era berean, zinegotziei gai ordenan landuko diren espediente elektronikoei sarbidea emanen zaie, hauen erabilera egokia ziurtatuz.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Hemendik aitzin osoko bilkuretarako deialdien jakinarazpenak egoitza elektronikoko jakinarazpen bidez egitea.

3. ADAMO TELECOM IBERIA, S.A.U. ARANTZAKO HERRI LURRAK OKUPATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA.

Idazkariak Adamo Telecom Iberia, S.A.U. enpresak Igantzitik Arantzara zuntz optikoa eramateko azpiegiturak egiteko proiektuaren berri eman du. Horri dagokionez, azaldu du azaroaren 21eko 190/2024 Alkate Ebazpen bidez Arantzako lur ez urbanizagarrian zuntz optikoa pasatzeko azpiegiturak egiteko obra baimena eman zela eta bertan baldintzatu zen herri lurretan zuntz optikoa instalatzeko kanalizazioak egiteko okupazio espedientea izapidetu beharra zela.

Hauek izanen lirateke herri lurrei eragiten dieten azpiegiturak:

ID	Municipio	Elemento	Pol.	Parcela	Longitud ml	Superficie m ²	Precio
1	Arantza	Línea Fibra	6	96	183	549,00	1,4 €/ml
	TOTALES				183	549,00	256,20 €



ARANTZAKO UDALA

Aipaturiko herri lurren okupazioa arautuko duen Plegua azaldu du idazkariak.

Horrela bada, herri lurren okupazioa onartzeko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 172. artikuluan xedaturikoari jarraiki egin beharko litzateke, 140. artikuluko zenbait berezitasun aintzat hartuta.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, legezko kide kopuruaren gehiengo osoa izanik, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Hasiera batez onestea herriari zerbitzua emanen dion zuntz optikoaren kanalizazioak egiteko Arantzako herri-lurra den 6 poligonoko 96 lurzatiko 549,00 m²-en okupazioa.

2.- Okupazioa arautuko duen plegu arautzailea onartzea.

3.- Hasierako onespen akordioaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udalaren iragarki taulan argitaratzea, espedientea 15 egun balioudenez jendaurrean paratuz, herritarrek eta/edo interesdunek legezkotzat jotzen dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

4.- Jendaurreko epean alegaziorik aurkeztu ezean, behin betikoa egitea hasiera batez onarturikoa eta espedientea Nafarroako Gobernuko Herri-lurren Atalari helaraztea, hala badagokio, Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren ebazpen bidez okupazioa baimendu dezan.

5.- Akordio hau Adamo Telecom Iberia, S.A.U.ri jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

4. ALKATE EBAZPENAK.

2025eko 31tik 49ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

5. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.

Bertze aztergairik izan gabe, 17:15ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

**Ziurtatzen dut
IDAZKARIA,**

Saturnino Larralde Ibarrola

Nagore Madariaga Iriarte